

2017KO UZTAILAREN 4AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamazazpiko uztailaren 4a izanda, arratsaldeko zazpiak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen apirilaren 11ko ohiko bilkuraren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du hutsegite antzeman duela bosgarren atalean, haren bozka islatzean, hura abstenitu egin baitzen. Esandako hutsegitea zuzenduko dela argitu diote.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, A.J.A. 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
99	2017/06/01	OBRA-LIZENTZIA EMATEA KOMUNAK KONPONTZEKO ORBISORAKO BIDEAN
100	2017/06/01	OBRA-LIZENTZIA EMATEA HESIA JARTZEKO HORRADICHO-ENTREPEÑAS ERREPIDEKO LURZATIAN
101	2017/06/06	OBRA-LIZENTZIA EMATEA FAMILIA BAKARREKO ETXEAN HORRADICHO-ENTREPEÑAS ERREPIDEAN
102	2017/06/08	OBRA-LIZENTZIA EMATEA SUKALDEA KONPONTZEKO SANTA ELENA KALEAN
103	2017/06/12	OBRA-LIZENTZIA EMATEA LURZATIAN HESIA JARTZEKO
104	2017/06/12	EZKONTZA-ZIBILAK ESKUORDETZEA
105	2017/06/13	IBILGAILUEN ZERGA ITZULTZEA
106	2017/06/15	JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO EJKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA

107	2017/06/16	OBRA-LIZENTZIA EMATEA ESTALDIKA BIRGAITZEKO
108	2017/06/21	AFAKO IGNAZIOTAR BIDERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA
109	2017/06/22	OBRA-LIZENTZIA EMATEA LEHIOAK ALDATZEKO IMPERIAL KALEAN
110	2017/06/22	OBRA-LIZENTZIA EMATEA FATXADA KONPONTZEKO LA VILLA KALEAN
111	2017/06/27	03/2017 KREDITU-GAIKUNTZA ESPEDIENTEA ONARTZEA
112	2017/06/27	02/2017 KREDITU-TRANSFERENTZIA ESPEDIENTEA ONARTZEA
113	2017/06/28	UR6-ORBISO ERREKURTSOA EBAZTEA
114	2017/06/29	BANKU TRANSFERENTZIA ONARTZEA
115	2017/06/29	HAURRESKOLAKO OBRAK ESLEITZEA ETXAJAUN XXI ENPRESARI
116	2017/06/29	04/2017 KREDITU-GAIKUNTZA ESPEDIENTEA ONARTZEA
117	2017/06/30	2017KO UZTAILAREN 4AN OSOKO BILKURA DEIALDIA

3.- KANPEZUKO KUADRILLARI HAREN EGOITZARAKO ERAIKINA LAGATZEAREN ONARPENA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

Ikusirik Kanpezuko Udalak "Medikuaren etxea" deitutako eraikinaren 49,625 ehunekoaren jabea dela; hura Santikurutze Kanpezu herrian dagoela, eta, gaur egun Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitza dela.

Ikusirik higiezinaren lagapen kontratu berria formalizatzeko beharra, haren lagapena arautzen zuen aurrekoaren epea bete da-eta.

Ikusirik Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillak 20 urtez doaneko lagapenerako egin duen proposamena.

Ikusirik 2017ko uztailaren 3ko Idazkaritzaren aldeko txostena.

Ikusirik 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21 eta 22 artikuluen arabeko arloko eskuduntzak.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Santikurutze Kanpezuko herrian dagoen eta Kanpezuko Udaleko jabegoa den "Medikuaren etxea" Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillari lagatzea, haren egoitza izateko, espedientean jasotzen den proposameneko baldintzetan.

BIGARRENA.- Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren lehendakariari akordioaren berri ematea.

HIRUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea beharrezko dokumentuak sina ditzan.

4.- KANPEZUKO FUTBOL-ZELAIA ERAIKITZEKO AFARI ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

Ikusirik Real Federación Española de Fútbol delakoak eta Arabako Foru Aldundiak duten lankidetzeta-hitzarmena, titulartasun publikoko instalazioak eraikitzeari, hobetzeari, handitzeari edo birmoldatzeari buruz.

Ikusirik futbol-zelaia eraikitzeiko Kanpezuko Udalak aurkeztu duen proiektua.

Ikusirik esandako proiektua aipatu den hitzarmenak jasotzen dituen artean dagoela.

Ikusirik 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21 eta 22 artikuluen arabeko arloko eskuduntzak.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Kanpezuko futbol-zelaia egiteko zuzeneko diru-laguntza eskatzea Arabako Foru Aldundiari titulartasun publikoko instalazioak eraikitzeari, hobetzeari, handitzeari edo birmoldatzeari buruz Real Federación Española de Fútbol delakoak eta Arabako Foru Aldundiak duten lankidetzeta-hitzarmenean oinarrituta.

BIGARRENA.- Arabako Foru Aldundiari akordioaren berri ematea, diru-laguntza izapidetzeko dokumentazioarekin batera.

HIRUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea beharrezko dokumentuak sina ditzan.

5.- EUDELI BORONDATEZKO KUOTA ORDAINKETA ONARTZEA, EGOKIA BADA.

Ikusirik EUDELek igorritako idatzia non Lurralde Historiko bakoitzeko Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren %0,15 ordaintzeko eskatzen duen.

Ikusirik Arabako kasuan, ekainaren 30eko 19/1997 Arabako Toki Entitateak finantzatzeko foru funtsa arautzeko Foru Arauan esandako ordainketa ez dela jasotzen.

Ikusirik adierazitako ordainketa egiteko Entitate bakoitzak banan-banan hartu behar duela akordioa; eta ondoren, Arabako Foru Aldundiari akordioaren berri eman urtero automatikoki kentzeko.

Ikusirik orain arte Udal honek ez zituela kopuru horiek ordaintzen.

Ikusirik 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21 eta 22 artikuluen arabeko arloko eskuduntzak.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- EUDELi Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren (TEFFF) %0,15aren ordainketa onartzea, guztira 626,92€, EUDELen finantziazioan partehartze gisa.

BIGARRENA.- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari eskatzea 2018an Udal honi TEFFFen behin betiko hasierako partaidetzatik ekitaldi horretan egokituko zaion kopurutik %0,15 kentzeko; eta horrela, Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL) finantzatzeko.

HIRUGARRENA.- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari eskatzea hurrengo ekitaldietan, eta araudia aldatzen ez den bitartean, TEFFFen behin betiko hasierako partaidetzatik %0,15 kentzeko; eta horrela, Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL) finantzatzeko.

LAUGARRENA.- Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari eta Euskadiko Udalen Elkarteari, EUDELi, akordioaren berri ematea.

6.- 2016KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

Ikusirik 3/2005 Foru Araua, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoan 62. artikulua.- "1.- Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu: a) Egoeraren Balantzea. b) Galera eta Irabazien Kontua. c) Memoria; honek atal hauek izan behar ditu: 1. Finantzaketa-taula. 2. Zorraren egoera. 3. Informazio-eranskina; hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira. d) Aurrekontuaren likidazioa. 2.- Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte: 1. Egiaztapenaren balantzea. 2. Kreditu-aldaketen egoera-orria. 3. Balioen

egoeraren eta mugimenduen orria.” eta 63. artikulua.- “1.- Toki erakundearen urteko orri eta kontuen berri hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen emango du erakundeko buruak. Organismo autonomo eta sozietate publikoenak, organo eskudunek behin-behinean aurkeztu eta onesteko proposatu ondoren, toki erakundeari bidaliko zaizkio aurreko epe berean. 2.- Korporazioburuak gertututako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren onespenerako. 3.- Kontu Orokorra, aurreko idatz zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharrak aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du. 4.- Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, Kontu Orokorra korporazioaren osoko batzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailearen 31 baino lehen onetsiko da. 5.- Toki erakundeek behar bezala onetsitako Kontu Publikoaren berri emango dio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.”

2017ko maiatzaren 18an, alkateak osatutako Kontu Orokorra eta Kontuen Batzorde Bereziak egindako txostena aztertu ondoren.

Aipatu Kontu Orokorra jendaurrera azaldu da araututako epean, ez denez aurkeztu erreklamaziorik, ez ingerik zein oharririk

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA:- Entitate honen 2016 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA:- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari igorri onartu Kontu Korrontea.

7.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotzia den heinean, adierazi du Jaibus zerbitzua eskainiko dela aurreko urteko baldintzak mantenduz. Lehenengo bidaia, Zuñigara, ez da lotu, eta uztaileko aurreikusten dira Acedo eta Ancín, abuzturako, Los Arcos. Zain dago Murietarako bidaia.

Igerilekuei dagokienez, ekainaren 16an zabaldu ziren inolako gorabeherarik gabe.

Arenaza andreak, Gizarte Gaietarako Zinegotzia den heinean, uztailearen amaieran kontsultategia lekuz aldatuko duela esan du, eta geroztik lanean egongo da bertan.

Haurreskolako obren inguruan, adierazi du obra txikietarako diru-laguntza eskatu zela, eta eman egin dietela. Ikasle kopuruaren problematika dela eta, onartu zen mozioa sailburuari bidali zaiola esan du, eta aintzat hartuko duen zain daudela.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotzia den heinean, aipatu du EITak aurkezteko borondatezko epea amaitu ondoren, guztira 10 eskaera jaso direla. Haietako batek, akats gehiago dituenez, dauden diru-laguntzetan aurkezteko aukera du. 50 urte baino gehiagoko eraikin guztietarako aurkeztu behar dela gogoratu nahi izan du.

Paisaian eragiteko planetarako diru-laguntza atera dela, eta etorkizunerako baliabidea izango dela esan du. Orain eskatu behar da jarrian plan zuzentzailearekin hasi behar baita. Jaso daitekeen dirulaguntza, gehienez, %90a izan daiteke. Memoria Araudi aholkularitzak aurkeztuko luke.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Emplegu zinegotzia den heinean, lehenengo hiruhilabetearen amaieran, aurrekontuen gauzatze egoeran 525 mila euroko eskubide garbiak daude, eta, aldiz, 603 mila euro izan dira aintzatetsitako betebeharrak. Diruzaintzan 300 mila euro inguru daudenez, egoera ekonomikoa egonkorra eta ona da.

Enplegua sustatzeko ordenantzari buruz, aldatu da eta zirriborroa bidali da horri buruz lan egiten hasteko.

Lanbide dela eta, deialdia uztialean aterako dela aurreikusten da.

Garcia de Acilu jaunak eskatu du hurrengo osoko bilkurara enplegu tasaren garapena eramateko.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten, eta EAJ udal taldeak honako hauek adierazi ditu:

- Saenz de Ugarte andreak trafiko ordenantzari buruz galdetu du.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotziak, azaldu du hurrengo astera arte itxaron nahi dutela gaiaren inguruan lantaldea osatu nahi dutelako.

- Herrador jaunak garbigunea dela eta aipatu du jakinarazi diotela AFAk eta Sprilurrek lurzatia erosteko akordioa lortu dutela.

Era berean, Izkin burutu asanbladan, gai gutxi landu zituztela; nabarmena, agian, transformazio-zentro baterako aztetzeko proposamena.

- Quintana andreak honetan agiriak erregistratzeko hitzarmena sinatzeko aukeraren inguruan haren taldearen eskaera aurkeztu du udal.

Alkateak gogoratu du abuztuan ez dela osoko bilkurarik deituko; eta, hortaz, hurrengo bilkura irailaren 12an izango da.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko zazpiak eta hogeita hamazazpi minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.